

Etiketak ala kategoriak? Edukiak antolatzeko bi era desberdin

Gure gizartean, ohikoa da datu edo elementu sorta handiak sailkatzea, gerora bilatu nahi izango dugun hori errazago aurkitu ahal izateko, batik bat. Sailkapen sistema klasikoetako bat da liburutegietan baliatzen dena. Bertan, gaika antolatutako apalen bitartez sailkatu ohi dira liburuak. Ondorioz, gai jakin bateko liburu baten bila bagabiltza, aurkibidean gai hori zein apaletan dagoen begiratzuz, bertara jo eta nahi dugun liburua aurkitu ahal izango dugu. Liburuak, beraz, gai edo kategorien arabera antolatzen dira, baina, beti apal bat esleitu beharko diogunez, kategoria bakarrean egon beharko du. Liburuaren kokapen fisikoak sortzen du muga hori. Zer gertatzen da, beraz, hizkuntzalaritza konputazionalarekin lotutako liburu bat bilatu nahi badut? Informatika ala Hizkuntzalaritza atalera joko dut?

Informatika ala hizkuntza

Horrelako arazoak teknologiaren erabilerarekin konpondu ahal izan dira nolabait. Alde batetik, muga fisikoak gaindituta, liburu bakoitza nahi bezainbeste kategoriatan egon daiteke datu-base digitaletan. Ondorioz, "taxonomia izenez ezagutzen den kategoria-egitura digital horretan nabigatzuz, hizkuntzalaritza zein informatika alorretik joz aurkitu ahal izango ditugu hizkuntzalaritza konputazionalarekin lotutako liburuak.

Taxonomia hori, ordea, aurrez definitu ohi da, eta urteak pasa ahala kategoria berriak gehitu ahal izateko zailtasunek arazoak sortu ohi dituzte. Adibide gisa, UNESCO sailkapen sistema dugu. Garai batean, Informatika kategoria kontuan hartu gabe sortu zuten, horren beharrik ez zegoelako. Geroago, baina, moldaketen beharra sumatu zuten, behar berrietara egokitzeko alegia, eta ondorioz Informatika gehitu behar izan zuten. Moldaketa hauen ondorioz, bikoiztuta eta bide oso arraroei jarraituta aurkituko ditugu informatika edo konputazio-sistemei dagozkien kategoriak.

Arazoak arazo, edukiak antolatzeko sistema berri baten bitartez hobetu ahal izan da sailkatzeko sistema klasiko hori, oraindik ere perfektua denik esaterik ez badugu ere. Etiketetan oinarritutako sistema, alegia. Etiketak objektua definitzen duten hitz-gakoak baino ez dira. Egungo webguneetan ohikoa da etiketen erabilera, Delicious edo bildu.net bezalako markatzaile sozialetan, esate baterako. Eta Flickr eta Youtube bezalako guneetan ere bai.

Gune hauetan, erabiltzaile bakoitzak proposen iruditzen zaizkion etiketak erabil ditzake objektu (web orrialde, liburu,...) bakoitza definitzeko. Esate baterako, Delicious (<http://www.delicious.com>) webgunean laster-marka bezala gorde dezake Flickr, "argazkiak", "konpartitu eta" "soziala etiketak esleitzuz. Kategoria-sistemetan ez bezala, ez dago etiketa horiek lehenagotik existitzeko beharrik, erabiltzaileak unean bertan asma baititzake. Kategoria-sistemetan sortutako egiturari "taxonomia esaten zaio, etiketa-sistemetan sortutakoari, berriz, "folksonomia deritzo; hau da, "folk (herria) + taxonomia, herriak sortutako taxonomia. Aurretik erabili gabe zeuden etiketak erabili ahal izate honek abantaila handia dakar, izan ere, lehenago existitzen ez ziren gaiak etiketa izateko aukera dago, inongo arazorik gabe. Esate baterako, "errealitate aberastua edo "ipad, gertaera aski berriak, aurretik aipatu gabekoak, etiketa gisa baliatzeko arazorik ez dago.

Liburuen kasuan, etiketa-sistemetan oinarritutako sistema ezagunak existitzen dira, era berean. Erabilienean artean aipatzekoak dira LibraryThing (<http://www.librarything.com>) eta GoodReads (<http://www.goodreads.com>). Bertan, erabiltzaileek etiketen bitartez ezaugarritu egiten dituzte liburuak. Emaizta gisa, etiketa-zerrenda bat izango du liburu bakoitzak, horietako bakoitza zenbat erabiltzailek esleitu duen adieraziz. Esate baterako, Harry Potterren liburu baten kasuan, honelako zerbait aurki genezake:

"harry potter (2.615), "magia (1.735), "haurrentzako literatura (465), "abentura (288), "britainiarra (282), "film bilakatutako liburuak (96), "fikziozko fantasia (85), eta beste asko. Zerrenda horretan, "Harry Potter eta Suaren Kopa eleberriari LibraryThing webgunean (<http://www.librarything.com/work/113>) esleitu dizkioten etiketak ageri dira, alboan dutelarik hori baliatzea erabaki duen erabiltzaile kopurua. Agerikoa da etiketa-sistema honek liburuok faktore ezberdinen arabera sailkatzea ahalbidetzen duela: pertsonaiaren arabera (harry potter), adinaren arabera (haurrentzako literatura), jatorriaren arabera (britainiarra), formatuaren arabera (film bilakatutako liburuak), eta abar luze bat. Baina, horrez gain, erabiltzaile guztiek adostutakoaren arabera, etiketa bakoitzari garrantzi ezberdina emateko aukera eskaintzen du. Honenbestez, erabiltzaileek garrantzi handiago eman diete goian azaltzen diren etiketei, erabiltzaile gutxiak aukeratutako beste batzuei baino. Honi esker, gai zehatz baten bila goazenean, horrekin lotura handia duten liburuak ikustea izan daiteke gure helburua. Kasu honetan, "magia bilatuz gero, Harry Potterren liburuak beharko luke garrantzitsuenen artean, erabiltzaile askok hala nahi izan dutelako. Liburutegi fisiko batean, ordea, bi arazo aurkituko nituzke, seguruenik: alde batetik, ez dut magiari lotutako apal berezirik aurkituko, eta agian abenturari lotutako beste batera joan beharko dut, edo fikziozko apalera, batek daki; eta bestalde, apal bakarrean egoteaz gain, ez dira garrantziaren arabera ordenatuta egongo.

Etiketen sistema hau oso interesgarria da liburutegi digitalak mantendu ahal izateko. Dena dela, liburutegi fisikoei muga berdina izaten jarraitzen dute, ezin baita etiketa-sistema hau fisikoki aplikatu, digitalean baino ez. Erronka interesgarria pizten du, ordea, aukera honek: nola lagun diezaioke etiketetan oinarritutako sistema batek liburutegi bati?

Etiketen bidezko bilaketa

Liburutegi batzuk hasi dira etiketak aprobetxatzen eta, noski, erabiltzaileek definitutako etiketa-informazio hori salduz egiten dute negozioa LibraryThing bezalako webguneek. Liburutegi batean fisikoki eskuragarri dauden liburuak datu-base digital batean gordeta egon ohi dira gaur egun, ondorengo bilaketak errazago egin ahal izateko. Sistema honek etiketak integratzea litzateke hurbilketa aproposena, bilaketa sisteman ere integratuz. Beraz, sisteman liburu bat bilatzerakoan, ohiko metodoez gain (izenburuaren edo kategoriaren arabera bilatuz), etiketen bidezko bilaketa ere eskain liteke.

Honek izugarri erraztuko luke bilaketa lana. Hala eta guztiz ere, etiketen sistemak baditu muga txiki batzuk, eta horrexegatik garrantzitsua da bilatzean trebezia pixka bat izatea.

Alde batetik, sinonimiak sortutakoa. Etiketak erabiltzaileek definituak direnez, ulertu beharra dago guztiek ez dutela kontzeptu bera definitzeko hitz bera erabiliko. Batek "eleberria etiketarekin definituko du liburu bat, eta beste batek, aldiz, "nobela esleituko dio; edo batek "haurrentzako literatura erabiliko du, besteak "umeentzako literatura erabiltzen duenean. Nolabaiteko muga den arren, erraztu ere egiten du bilaketa lana, hitz bat zein bestea erabiliz bilatzen duenak aurkituko baitu nahi duena. Aurrerapen handia litzateke, bilaketa sistemak antzematea bi hitzok kontzeptu bera definitzen dutela.

Bestetik, polisemiaren arazoa legoke. Hitz-gako batek esanahi ezberdinak izan ditzakeenez, ezin dugu, printzipioz, bere helburua zein den jakin. Esate baterako, erabiltzaile batek "gorria etiketa erabiltzerakoan, gutxienez bi zentzutan erabil dezake: liburuak azal gorria duela adierazteko, eta komunismoaren inguruko liburuak dela adierazteko. Hori konpontzeko, bilaketak etiketa bat baino gehiago baliatuz egitea proposatzen da; hau da, "gorria+komunismoa bilaketa batek argituko luke "gorria etiketa horren esanahia.

Beraz, etiketen integrazioak abantaila handia ekar dezake objektuen sailkapenerako, etiketen erabilerak orain arteko hazkundera mantentzen badu behintzat.